

6. BEZEROEKIKO HARREMANAK

Sare sozialetan, iragarkiak egingo ditugu prentsan eta telebistetan gure enpresako iragarkiak egongo dira hauek lagunduko digute bezero berrien atenzioa deitzen eta gure enpresara erakartzea lortuko dugu.

Horrez gain, gure helburu nagusietako bat da bezeroak beharrezko tratu on eta gertu bat edukitzea eta inolako arazorik gabe hitz egitea. Honekin lortuko dugu gure bezeroak gertutasun hori aurkitzea gure enpresarekiko eta berriro bueltatzea gure enpresara.



Bezeroak gurekin komunikatzeko gure sare sozialen bidez komunikatu ditzake eta web orriaren bitartez.

Kontuan hartu beharreko alderdi nagusietako bat da gero eta bezero gehiagok Trivago bezalako online foroetara jotzen dutela beren iritzia uzteko. Plataforma erraz eta eskuragarriak dira, non gure enpresaren aldeko balorazioak egin ditzaketen edo, akatsen bat badago, publikoki salatu.

Gaur egun, Interneten enpresa baten ospea kaltetzea oso erraza bihurtu da, eta bezero haserretuek ez dute zalantzarik gainerakoei gure zerbitzuak erabiltzeko gogoa kentzeko. Horregatik, arreta handiz zaindu behar ditugu bezeroak eta haiekin dugun harremana.

